



**2017KO OTSAILAREN 24KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko otsailaren hogeita lauan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2017ko otsailaren 10ean egindako bilkurako akta.

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du fakturretan berak herri argiteriari buruz esandakoa bezala jasotzen dena, eguberrietako argiei dagokiena dela. Bestalde, Lazkao Txiki Musika Eskolari diru laguntza ematearen gaiaren ingurua, berak esandakoa aktak jasotzen den bezala ez baizik "ez dugula ezer egin" afirmazio bezala esan zuela. Azkenik, eta galdera eta erreguak puntuan, EH Bildu "aurka dagoela" ez baizik "ez zeudela alde" esan zuela.

Altuna zinegotziak (EAJ) esaten du galdera eta erreguetan, berak esan zuela azaroan bilera ireki bat egin zela Lartxain gaiari buruz eta han udalaren posizionamendua azaldu zela.


Gainontzean akta idatzita dagoen moduan onartzen da, aho batez.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 123 zbk.dun fakturen zerrenda, BI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HIRU EURO ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (2.323,97 €)takoa eta 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 8 zbk.dun fakturen zerrenda, LAUROGEITA BOST MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI EURO ETA ZAZPI ZENTIMO (95.959,07 €)takoa, bere espedientetan daudenak, onartzea erabakitzen da.

**III.- 2017-2019 EPEALDIRAKO UDALAK EMATEN DITUEN DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.-**

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, diru laguntzen ematea arautzen duenak, bere 8.1 artikuluan xedatzen du, diru laguntzak ematea ezarri nahi duen edozein administrazio publikok edo bestelako edozein entek, aurrez, plan estrategiko batean zehaztu beharko dituela diru laguntza horiekin lortu nahi diren helburu eta ondorioak, horiek lortzeko beha-



rrezko epea, aurreikusitako kostuak eta beraien finantzaketa iturriak, eta beti ere aurrekontu egonkortasun helburuak betetzearen menpean jarrita.

Udal honek 2017 eta 2019 epealdirako diru laguntzen plan estrategikoa prestatu du eta dokumentu hau, aurrez Ogasun Batzordeak informatua izan ondoren, Tokiko Gobernu Batzar honetara ekarri da bere onarpenerako.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, 2017-2019 epealdirako plan estrategikoa hau, bere espedientean dagoena, onartzea erabakitzen du.

#### IV.- KULTURAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Kulturako zinegotziak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartzen du:

Zawopi Taldea.- 2016ko eguberrietako jaiotza biziduna, errege kabalgata eta Astotxo Egunekeo ekintzen antolaketatik HIRU MILA LAUEHUN ETA HIRUROGEITA LAUROGEI EURO ETA HOGEITA HIRU ZENTIMO (3.463,10 €) ematea.

Lehen 2.500 € aurreratu zitzaenez orain ordainduko zaien kopurua BEDERATZIREHUN ETA LAUROGEI EURO ETA HOGEITA HIRU ZENTIMO (963,10 €) izango da.

#### V.- LANDA LURREKO DIRU LAGUNTZAK .-

Landalurreko zinegotziak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartzen du:

Antsoategi Elkartea.- 2017ko urtarrilaren 8an, Astotxo Egunean, Enkarterrietako asto lehiaketa erakusketa antolatzeagatik BOST MILA euro (5.000 €)ko diru laguntza ematea.

Diru laguntza honen kontura 2.500 € aurreratu zitzaioa kontuan izanda, orain ordainduko zaiona 2.500 € izango da.

#### VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) autokonpostaren bi puntu jartzearena nola dagoen galdetzen du.

Alkateak galdetutakoari erantzuten dio. Esaten du Sasietari esan zaiola ez direla bi gune errazak leku bat bilatzeko eta konplikatuta ikusten dela asfalto eta baldosa asko dagoelako.

#### VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hamaika direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.